

Daniel Harding zuzendari eta Daniil Trifonov piano bakarlari dituela, Mahler Chamber Orchestra izango da 87. Musika Hamabostaldiko lehen nazioarteko orkestra

- Daniel Harding zuzendari britainiarak gidatuko du, Claudio Abbadoren ekimenez sortua, hogei herrialde baino gehiagotako musikariek osatzen duten orkestra.
- Haiekin batera, Daniil Trifonov pianista ospetsua ere Brahmsen 1. Piano Kontzertua interpretatzeko Hamabostaldian izango da.
- Sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta Kursaalera nahiz Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan salgai daude.

2019an Musika Hamabostaldian azkenekoz aritu ondoren, **Mahler Chamber Orchestra (MCO)** bihar itzuliko da jaialdira, **abuztuaren 6an, ostegunean**. Daniel Harding zuzendari sarituaren gidaritzapean, MCOk erreperitorio erromantikoa izango du ardatz. Horretarako, elkar ezagutu eta elkar miretsi zuten bi konpositoreen obra bana interpretatuko ditu. Egitarauan izango dira **Brahmsen 1. Pianorako kontzertua** (Daniil Trifonov pianista errusiar-estatubatuarra bakarlari dela) eta **Dvořáken 8. Sinfonia**. Kontzertua **20:00etan izango da, Kursaal Auditorioan**.

Daniel Harding 2023an izan zen azken aldiz Hamabostaldian, Chamber Orchestra of Europe ganbera-talde ospetsuaren zuzentzen. MCOrekiko duen konpromisuaz gain, Harding Erromako Accademia Nazionale di Santa Cecilia zuzendari da eta, 2027/28 denboralditik aurrera, Gustavo Dudamelen lekua hartuko du Los Angelesko Orkestra Filarmonikoaren zuzendari titular gisa. Daniel Hardingena, kasu berezia da, 17 urte besterik ez zituela hasi baitzen nazioarte-mailan nabarmentzen: Simon Rattlek Birmingham Hiriko Orkestrako bere laguntzaile hartu eta ondoren, Cambridgeko Unibertsitatean ikasten ari zela, Claudio Abbadok Berlingo Orkestra Filarmonikoko laguntzaile izendatu zuen. 21 urte besterik ez zituela zuzendu zuen lehen aldiz orkestra hura. Harrezkero, Harding nazioarteko zuzendari entzutetsuenen artean kokatu da eta, besteak beste, Vienako Orkestra Filarmonikoa, Amsterdamgo Royal Concertgebouw Orkestra eta Bavariako Irratiko Orkestra Sinfonikoa nazioarteko prestigidun orkestrekin dihardu sarritan; eta, musikaria izateaz gain, Air France konpainian hegazkin komertzialetako pilotu ere bada. Alemaniako erreperitorio erromantikoaren interpretazioan erreferente izateaz aparte, opera-zuzendari nabarmena ere bada. Ospe handiko jaialdietan parte hartu du, hala nola, Salzburgo eta Aix-en-Provence, baita Londresko Royal Opera House eta Milango La Scalan, beste askoren artean.

Daniil Trifonov pianista bere belaunaldiko interprete garrantzitsuenetako bat da; izan ere, goi-mailako teknika eta sentsibiltate pertsonala berezko naturaltasun zein berezkotasun handiz uztartzen ditu. 2010/11 denboraldian lortutako honako hiru sari garrantzitsuei esker, nazioarte-mailan izandako ospea are gehiago handituz joan zen: hirugarren postua Chopin Varsoviako Lehiaketan eta lehen sariak Tel Aviveko Arthur Rubinstein Lehiaketan zein Moskuko Txaiovski Lehiaketan. Horren ondorioz, Deutsche Grammophon eskutik grabazio-ibilbide sendoa garatu du. 2018an musika-gailurrera iritsi zen, Lisztren musikari eskainitako *Transcendental* diskoari esker Bakarkako Disko Instrumental Onenaren kategorian Grammy saria jaso zuenean. Nabarmentzekoak dira, halaber, Gramophone aldizkariak 2016an eta Musical Americak 2019an Urteko Artista izendatu izana, baita 2021ean Frantziako Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres-en domina jaso izana ere. Errezitaletan maiz interpretatzen dituen konpositoreen antzera, Trifonov pianista ez ezik konpositorea ere bada. Beste hainbat lanen artean, pianorako kontzertu bat idatzi du, berak estreinatu zuena.

Mahler Chamber Orkestrak (MCO) urte askotako lotura dauka Musika Hamabostaldiarekin. 2015ean azken aldiz izan zen jaialdian: Manfred Honecken zuzendaritzapean eskainitako bi kontzertuekin hasiera eman zion urte hartako edizioari; eta 2019ko udan ere bitan jardun zen, Jakub Hrůšaren

gidaritzapean. Mahler Chamber Orchestra (MCO) 1997an Gustav Mahler Jugendorchester gazte-orkestratik abiatuta eta Claudio Abbadoren laguntzari esker sortua, laster bihurtu zen Europako ganbera-orkestra entzutetsuenetako bat. Orkestra nazioarteko izaeradun *ensemble* autonomoa da. Ferraran, Aix-en-Provencen, Luzernan eta Salzburgon ditu egoitzak eta 20 herrialde baino gehiagotatik etorritako 45 musikarik osatzen dute; birak egiteko elkartzeaz gain, orkestraren jardunari eta etorkizunari buruzko erabakietan parte hartzeko eskubidea daukate guztiek. Azken hamarkadetako zuzendari ospetsuenekin batera bost kontinenteetako 40 herrialdetan aritu da Mahler Chamber Orchestra eta, gaur egun ere etengabean dihardu: urtean 180 kontzertu inguru ematen ditu. Garai klasikoko eta erromantikoko lanak bere erreperitorioaren ardatzetako bat dira; tradizio sinfoniko handiari eusten diote, baina, aldi berean, antzinako musikaren mugimenduak ekarritako irizpide estilistikoak ere txertatzen dituzte emanaldietan. Horrez gain, musika garaikidearen aldeko konpromiso sendoa dute eta mundu mailan maiz estreinatzen dituzte obra berriak.

Gitara. Robert eta Clara Schumann ezagutu eta hilabete gutxira, 1854ko udaberrian, **Johannes Brahms**ek **1. Pianorako kontzertua** idazteari ekin zion. Brahms hasieran bi pianorako sonata handi bat idazten hasi zen, Clarak eta berak jotzeko. Baina Beethovenen 9. *Sinfonia* lehen aldiz entzun ondoren, eskuartean zuen lana handituz joan zen, izaera sinfoniko nabarmeneko piano-kontzertu bihurtu arte. Horrela sortu zen, gainera, Brahmsen lehen obra orkestral nagusia. 1859an Leipzigen estreinatu zenean harrera gorabeheratsua izan bazuen ere, partitura maisulana da eta ez dauka, inolaz ere, lehen lan baten itxurarik. Musika dramatiko eta indartsua biltzen du, guztiz heldutako hizkera sinfoniko baten erakusgarri. Horri esker, zenbait unetan, garai hartan ohikoa ez zen pianoaren eta orkestraren arteko elkarriketa zein lankidetzatza molde berritzailea proposatzen du. Kontzertuak aukera ugari eskaintzen dizkio bakarlariari, bere maisutasuna ez ezik, alderdi lirikoena ere erakusteko. Baina badu bestelako sakontasuna ere: emozioz beteriko obra da, eta, Phillip Huscherren esanetan, «Brahmsen Robert Schumannen gainbeheraren eta heriotzaren aurrean bizi izan zuen saminaren arrastoa darama, baita Clararekiko harremana sendotu ahala sortu ziren barne-gatazka eta grinena ere».

Kontzertuaren bigarren zatian, Mahler Chamber Orkestrak **Antonín Dvořák**en **8. Sinfonia sol maiorrean** interpretatuko du. 1889an idatzia eta Frantzisko Jose enperadorearen Bohemiako Akademiari eskainia, Dvořák en ziklo sinfonikoko lan argitsu eta alaitzuenetako bat da. Sarritan sinfonia pastoral gisa ulertu izan ohi da, konpositoreak horretan, 7. *Sinfonia*ren izaera zorrotza eta 9. *Sinfonia* «*Mundu berriarena*» ospetsuaren handitasuna alde batera utzita, giro argitsuago, berezkoago eta askatasun handiagokoa landu baitzuen. Lau mugimenduetan zehar, Dvořákek Bohemiako herri-musikan oinarritutako doinu ugari erabiltzen ditu. Tonalitate nagusiak eta txikiak txandakatu bitartean, valsaren zein Txekiako dantzen erritmoak uztartzen ditu. Horri esker, naturarekiko ospakizuna eta landa-giroko alaitasuna dira obraren ezaugarri nagusiak. Obrak berezkoasuna transmititzen badu ere, xehetasun handiz landua dago. Horren erakusgarri argiena azken mugimenduko bariazio-gaia da: tronpeten fanfarre dramatiko batekin hasteaz gain, pasarte horretan ageri da argien Dvořák en maisutasuna. Hala ere, Rafael Kubelík zuzendari txekiar ospetsuak zioen bezala, «Bohemian, tronpetek ez dute inoiz gudura deitzen, dantzara baizik». Horrela, sinfoniak poztasun eta garaipen kutsuz beteriko amaiera bizi-bizia du, aski ospetsua.

Sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta **Kursaaleko zein Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke.

MAHLER CHAMBER ORCHESTRA
DANIEL HARDING zuzendaria
DANIIL TRIFONOV pianoa

Abuztuaren 6a, osteguna. 20:00. Kursaal Auditorioa